

**Mertxe Aizpurua  
ez da berriro alkatetzara  
aurkeztuko**

**Euskararen arnasguneak  
erdalduntzen ari dira**

**“Izarren argia” filma,  
igande honetan Sutegin**

# noaua



## Ipuin eta kolore festa

# SAGAR LORE

Jaio da zizarra  
100% sagardo sagarra

made in **ASTIGARRAGA**  
by **PETRITEGI**




## FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

•EDOZEIN ASEGURU IZANDA  
(OCASO, SANTALUCIA...)  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ  
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**  
(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA  
EDO ERREZIBOA EDO HORRELA KORIK EZ DUGU BEHAR,  
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

**943 36 21 63 (24H)**

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK  
•Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo  
beilatokia DOAN (gure eskutik)

[info@funerariagonzalez.es](mailto:info@funerariagonzalez.es) [www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

Lehenengo 6  
erosleentzako,  
garaje bikoitza  
banakako  
prezioan!

# ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

## 188.000 € tik



12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi**<sub>n</sub>

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

## USURBILEN



**VIVIENDAS LANIN S.L.**  
Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia E.: [contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)

## Albiste iruditzen

# Alkartasunak sagastien zainketa ikastaroa antolatu du

Sagarrondoaren neguko eta udako inausketa ezagutzea, ongarritzea, izurrite eta gaixotasunen jarraipena egitea. Sagarraren heldutasun analisia eta bilketaren aurreikuspena. Gaiok landuko dituzte, Alkartasuna, Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak antolatu duen sagastien zainketa ikastaroan. Saioak otsailaren 28an hasi eta irailaren 12ra arte luzatuko dira. Larunbat goizetan izango dira beti, Potxoenean. Sagarraneko kide Aitor Etxeandiak bideratuko du ikastaroa, euskaraz. Ezagutza maila guztiei zuzendua, teoria eta praktika uztartuko dira. Izen ematea zabalik dago. Apuntatzerakoan, ordaindu beharreko diru-kopuruaren zati bat, urriaren 4an Usurbilen ospatuko dugun #Kilometroak15 ekimena laguntzera bideratuko da:



Larunbat goizetan egingo dira ikastaroak, eta teoria eta praktika uztartuko dira.

- Egutegia: otsailak 28, martxoak 7 eta 14, maiatzak 23, ekainak 13, irailak 12.
- Orduetgia: 9:00-13:00.
- Tokia: Potxoenea.
- Prezioa: 90 euro (zati bat #Kilome-

troak15 ekimena laguntzeko).

- Izen ematea: Alkartasuna Kooperatiba: Atallu Industrialdea 26. 943 361 114 [alkartasunausurbil.com](http://alkartasunausurbil.com) [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)

## Laburrean

### 1956koen kinto afarian izena emateko azken egunak

Otsaileko azken larunbatean elkartuko dira 1956an jaiotakoak. Antxeta jatetxean batuko dira, otsailaren 28arekin.

Izen emateko epea larunbat honetan amaituko da: otsailaren 21era arte dago tokia hartzeko aukera. Apuntatzeko telefono zenbaki honetara deitu behar da: 648 755 316 (Guillermo).

### Diru-laguntza deialdiak, otsailaren 26ra arte zabalik

Otsailaren 26ra arte zabalik Usurbilgo Udalarren diru-laguntzak eskatzeko epea, udal erregistroan. Bost dira Udalak eskaintzen dituen diru-laguntzak; nekazaritza-abeltzaintza, ingurumena, kultura, kirola eta gizarte alorretakoak. Otsailaren 3ko GAOn daude deialdion oinarriak. Argibide gehiago: Potxoenean, [kultura.usurbil.eus](http://kultura.usurbil.eus) edo [usurbil.eus](http://usurbil.eus) web orrietan.

### SOS Afrika kanpaina, Udarregi ikastolan

Arropa eta oinetako bilketa kanpaina jarri da martxan. Urtero moduan, Udarregi Ikastolan bat egin du Gobernu Kanpoko Erakunde honek sustatze duen ekimenarekin, eta herritarrak kanpainen parte hartzera animatzen dituzte. Bilketa, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan egingo da eta otsailaren 25ean asteazkena amaituko da.

# noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberi, 3 - Eguzkitzalea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // [elkartea@noaqua.com](mailto:elkartea@noaqua.com) // [www.noaqua.com](http://www.noaqua.com)

Jendaurreko orduetgia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

[publizitatea@noaqua.com](mailto:publizitatea@noaqua.com)

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

[erredakzio@noaqua.com](mailto:erredakzio@noaqua.com):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

## Fanatismo basatia

**O**so desesperatuta edo gutiz zoraturata egon behar du pertsona batek "Allahu Akbar" (Allah handia da) orro eginez dozena bat kazetari hiltzeko. Nork sinetsiko die Jainkoa handia dela lehegailuak eta kalashnikovak behar baldin baditu? Fedeak eraginda ez zuten egin masakre hori, fanatismoak bultzatuta baizik. Horrela hasten zuen Joxe Arregik bere hausnarketa Parisen gertatutakoari buruz. Duela hilabete burutu zuten basatikeria hori. Nik ere nire ekarpena egin nahi nioke zutabe honetan adierazpen askatasunari.

Charlie Hebdo astekariak hamarkadak daramatza handizkiak, erlijioak, politikoak eta beste zenbait pertsona eta erakunde satirizatzen. Askotan irakurri dut. Erlijioei dagokienez, ez du esperientzia espirituala parodiatzen, erlijioen zenbait manipulazio eta anakronismo baizik. Batzuetan ez dit grazia handirik egin, lotsagabeegia eta erasokorregia aurkitu ditu zenbait binita, sentimendu erlijiosoak erraz

zauritzen dituzte. Nire ustez, erlijioen zenbait alderdi satirizatzea oso sanoa da, baina, errespetuz egin behar litzateke. Hala eta gutiz ere, ni ere Charlie Hebdo naiz, nola ez bada.

Historiagileek diotenez, satira Homeroren garaian erabiltzen zen duela 2.800 urte; nonbait bere epopeien parodiak idatzi zituen. Greziarren eta erromatarren denboran ere maiz erabiltako estilo literarioa izan zen. Obra ezagunena agian Petronioren "Satiricon" da; garai hartako pobreen eta aberatsen arteko kontrastea salatzen zuen Petroniok. Idazle klasiko askok ere erabili zuten literatura mota hau: Quevedo, Voltaire... Lehenbiziko herio zigorra idazle satirikoen kontra Ayatollah Jomeinik agindu zuen 1988an: horri deitzen zaio "fatua" edo ediktu erlijioso bat. Salman Ruschdiren aurka eman zuen bere "Bertso Satanikoak" Mahomaren bizitzaren parodia omen zirela eta.

Hiru alderdi garrantzitsu ikusten ditut afera honetan:

**1-Heziketa erlijioso.** Zalan-

tzarik gabe oso gaizki egingo lukete Islamaren hezitzaileek ahantziko balituzte bere baitan dauden fanatiko horiek. Gero eta erradikal gehiago izango dituzte Korana irakasten ez badute zentzu kritiko batekin. Duela mila eta laurehun urte idatzitako testua ezin da hitzez hitz hartu eta horrela Allahren nahia bezala zabaldu, hots, poligamia, emakumearen diskriminazioa, ezkontzen inposaketa..., ez dira onargarriak giza eskubideen arloan. Testu horien artean selekzio edo hautaketa bat egin beharra dago, kristau erlijioan bezala. Liburuaren parte batzuk garai hartako kulturaren isla besterik ez dira eta gaur ez dute balio; gehiago, oso kaltegarriak izan daitezke.

**2- Segurtasuna.** Eraso basati horren aurrean zer egin jendearen lasaitasuna eta segurtasuna garantizatzeko? Batzuen ustez horma sozialak eraiki behar dira, itxuraz sendoak, baina, horrek xenofobia eta arrazakeria gehitu besterik ez luke lortuko. Beste batzuek "oesteko" pelikula za-

harretan bezala tiroz konpontzea nahi lukete: indartsuena zein den frogatuz. Aditu baten ustez oreka lortu behar da libertatea, segurtasuna eta justiziaren artean.

**3- Autokritika.** Mendebaldeko ezin ditugu begiak itxi fenomeno horren aurrean; aztertu beharra daukagu zergatik dauden horrenbeste yihadista suizida Al Qaeda, nahiz Estatu Islamikoan. Islamismoan gutxiengo bat da, baina mendebaldeko azken ehun urte hauetan gutxietsi edo mespretxatu ditugun gehiengo baten kide dira. Horrenbeste ez lirateke izango Palestinan, Afganistanen, Iraken, Guantanamo egon diren krudelkeriak existitu ez balira. Konprenitzen saiatzen gara, ez justifikatzen noski.

Adierazpen askatasuna itotzen duenak Jainkoaren edo egiaren izenean, ez daki zer den ez Jainkoa eta ez egia. Iraindua sentitzen denak Jesusen edo Mahomaren gainean egin diren marrazki batzuenatik, adimen eta bihotz estuak ditu. Eta hiltzen duenak, ez du ez bihotzik eta ez adimenik.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Joxe Piñas

## Nafarroako olio, Errigoraren kanpaina berria

**2**015eko lehen kanpaina martxan jartzear du Errigorak, Nafarroa hegoaldeko euskalgintza lagundu eta tokiko produktuen salmenta sustatzen duen ekimenak. Nafarroa hegoaldean ekoiztako produktu sorta bat eskaintzen zuten udazkenean. Orain, bertako olioba olio bidioak saltzeko egitasmoa abiatu dute. Eskaerak egiteko epea otsailaren 20an zabalduko da.

Helbide honetara idatzi dezakezu; [usurbil@errigora.eus](mailto:usurbil@errigora.eus). Edo bes-

tela, etorri NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzara, eta eskuratu izen emate orria. Martxoaren 4ra arte bideratu ahalko dituzue eskaerak. Olio bidioak ekartzen dituztenean (martxoaren 12-13an), eskatu dutenekin harremanetan jarriko gara. Bi olio bidio hauek dituzue eskuragarri:

■ Oliba olio birjina estra ekologikoa: 5 litro, 28 eurotan.

■ Oliba olio birjina estra konbentzionala: 5 litro, 20 eurotan.

Prezioei begira, Errigoratik argitu nahi dutenez, "aurtengoa azken

urteetako oliba uzta eskasena izan da. Horixe da olioaren prezioak gora egin izanaren arrazoia".

### "Nafar hegoaldeko uzta, eskutik eskura"

Hauxe, Errigorakoek kanpaina berri-rako hautatu duten leloa. #ESKUTIKeskura egitasmoaren bidez, bertako produktuak eguneroko kontsumo ohituretara ekartzea proposatzen digute Errigoratik. Iaz, 30-35 herritan bideratu zuten kanpaina hau, eta 30.000 litro olio banatzea

lortu zuten, "ehunka lagunak lantzen eta ilusioari esker". Aurten, 50 herrietara hedatu asmo dute. Eta bigarren olio ekoizle bat batu da proiektura. Kalitatezko jakiak eskuratzeko aukera eskaini, Nafarroa hegoaldeko nekazari eta ekoizleen ogibidea babestu eta ingurumena zaindu nahi dute, proiektu honen bidez. Merkaturatze bide berri bat zabalduz, auzolana sustatuz eta ekoizle zein kontsumitzaileentzat egokiak diren prezioak finkatuz. Informazio gehiago: [errigora.eus](http://errigora.eus)

# Legegintzaldia amaituta, alkatetza utziko du Mertxe Aizpuruak

Aurreko astean eman zuen aditzera. “Lau urterako hartu nuen alkate izateko konpromisoa eta lau urte horiek bete ondoren, nire lanera itzuliko naiz”. Hala iragarri du Mertxe Aizpuruak berak, Usurbilgo EHBilduk argitaratu eta etxez etxe banatu berri duen aldizkariari eskaini dion elkarrizketan.

Azken lau urteotako balorazioa jasotzen duen 2011/2015 legegintzaldia-*ren balantzea* argitalpenean, honela dio: “Lau urterako nuen alkate izateko konpromisoa eta lau urte horiek bete ondoren, nire lanera, Gara egunkarira, itzultzeko asmoa dut. Kargurako hautagai izatea proposatu zitzaidanean egoera berezian ginen. Hainbat pertsona ezin ziren aurkeztu eta ezezkoa emateko eskubiderik ez nuela sentitu nuen. Baina beti izan dut buruan legegintzaldia ahalik eta era egokienean eraman behar nuela aurrera eta hor bukatzen zela. Zorionez, egoera aldatu da eta duela lau urte hauteskundeetan aurkezteko zeuden oztopoak desagertu dira”.

**Herriaren eta herritarren zerbitzura**  
Elkarrizketa berean, maiatzeko udal hau-



Alkatea izateaz gain, Mertxe Aizpuru Udalbiltzaren lehendakaria izan da azken bi urte hauetan.

teskondeetara Usurbilgo EHBilduk aurkeztuko duen alkategai berriari buruz honakoa adierazi du: “Ez dut dudarik EHBilduren baitan ongi aukeraturiko dugun pertsona izango dela hurrengo alkatea”. Hautagai berriari aholkatuko

liokeena: “bada herri ordezkariok burmuinean grabatuta eraman beharko genukeen ideia bat: herriaren eta herritarren zerbitzura gaudela”. Usurbilgo egungo alkateak, lau urteotako balantzea egin du elkarrizketa berean.

## Hauteskunderi begirako prozesua abiarazi du EH Bilduk, eta herri batzarra deitu du larunbaterako

Usurbilgo EHBilduk, azkenetan den legegintzaldi honen balantzea egitearekin batera, maiatzeko udal hauteskunderi begirako herri programa eta zerrendak osatzeko prozesua abiatuko du herritarrekin, larunbat honetan, otsailaren 21ean. Honatx iragarri dituzten bileren egutegia:

### Otsailak 21, larunbata

11:00 Herri batzarra Potxoenean: zerrendak osatzeko jasotako izen proposamenak aurkeztea, herri programa eta metodologiaren aurkezpena.

### Martxoak 7, larunbata

10:00 Mintegia Udarregi Ikastolan: arloka lan taldeak osatuz, programan sakontzea eta lehen tasunak zehaztea.

### Martxoak 21, larunbata

11:00 Herri batzarra Potxoenea Kultur Etxean: herri programa eta zerrendak erabakitzea.

Hitzorduotara agertu ezin dutenek, ekarpenak egiteko aukera izango dute, ehbildusurbil@gmail.com helbidera idatzita.



Batzarra 11:00etan izango da, Potxoenean.

# Badator “Oraina da geroa” parte hartze prozesuaren 2. fasea

Usurbilek etorkizuna marrazten segitzeko lanari helduko dio berri. Otsailaren 26tik aurrera, hain zuzen. Orduan abiatuko baita Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) eguneratzeko Udalak irailean martxan jarritako parte hartze prozesuaren bigarren fasea. Gogoan izan, lehenengo fasean, diagnostia aurkeztu eta herritarren ekarpenak jasotzeko dozenatik gora bilera egin zirela, iraila-urria artean; bai auzoka eta baita gaika ere. “Herritarrak (haur, gazte, heldu eta adinekoak), taldeak eta eragileak, udal ordezkariak eta teknikariak, denok elkarrekin, gure herria aztertu dugu eta etorkizunerako ditugun asmoak, helburuak eta ilusioak ezagutzera eman ditugu. Guztion artean gure etorkizuneko herriaren marrazkia osatzeko oinarria jarri dugu”, adierazi du Mertxe Aizpurua alkateak.

Udazkeneko lan saioetan, 200 herritar baino gehiagok eginiko 500 proposamenak, baliagarriak izango dira Udalarentzat. “Parte-hartze prozesuan jasotako ekarpenak nolako herria nahi dugun zehazteko oso baliotsua izan da. Egindako proposamen asko Plan Orokorrean jaso badaitezke ere, beste batzuk, zuzenean datozen urteetako aurrekontuetan txertatu daitezkeela deritzogu. Eta azken hauek, ahal den neurrian planifikatu



Ikasturte hasieran abiatu zen “Oraina da geroa” prozesua. Bigarren faseari ekingo zaio datorren astean Sutegin, aurrerakin dokumentuen aurkezpenarekin.

eta dagokion departamendura bideratuko ditugu, aintzat hartzeko”, iragarri du alkateak.

## Hiru proposamen

Prozesu hartatik “jasotako informazioarekin herriko diagnostia osatu dugu, eta orain diagnosi hori oinarri hartuta Hiria Antolatzeko Aurrerapen Dokumentua prestatzen ari gara, zehazki hiru proposamen prestatuko dira. Hiru proposamen horiek aurkeztuko ditugu, banan-banan, bilera irekian”. Otsailaren 26an eta martxoaren 5ean. Hitzorduotan parte hartzeko gonbita luzatzen du Usurbilgo Udalak.

## “Oraina da geroa”, hitzorduak

### Otsailak 26, osteguna

19:00 Aurrerakin dokumentuen aurkezpena Sutegiko auditorioan.

### Martxoak 5, osteguna

19:00 Aurrerakin dokumentuen eztabaida Potxoenean.

Deitzailea: Usurbilgo Udala. Informazio gehiago: [usurbilorainadageroa.com](http://usurbilorainadageroa.com) (bilertako aurkezpen txosten eta memoriak web gune berean ikusgai).



Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**Patri Jatetxea**  
K/nagusia 14. © 943 362 725

# Haur sahararrek ere "Oporrak Bakean" igarotzeko eskubidea dute



Udalak eta herritarrek aspaldi hartzen dute parte ekimen honetan. Argazkian, duela urte gutxi batzuk oporretara etorri ziren haur batzuei eginiko harrera.

**A**pirilaren 10era arte, zabalik dago Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuetan, "Oporrak Bakean" proiektuan izen emateko epea. Egitasmo honen bidez, errefuxiatu kanpamentuetan bizi diren 7-12 urte arteko haur sahararrei, udan bi hilabetez, euren egoera gatazkatsutik eta desertuko tenperatura altuetatik urrundu eta "beste errealitate bat ezagutzeko aukera" eman nahi zaie.

"1976tik saharar herria zatiturik bizi da. Errefuxiatu kanpamentuetan bizitzera behartu zituztenak Argeliako Hamadan bizi dira, desertuko tokirik gogorrean. Bertan euren seme-alabak jaio eta hazi ziren. Errefuxiatu egoerak eta lekuko zailtasunen ondorioz, bizirauteko beharrezkoak direnak kanpo laguntzaren bidez iristen dira. Oporrak Bakean proiektua, gerra-tearen irrazionalitatearen ondorioz baztertuak izan ziren saharar herriarekiko elkartasun keinua da", nabarmendu dute ohar bidez, Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik.

## BI HILABETEKO EGONALDIA

**"7-12 urte arteko haur sahararrei, desertuko tenperatura altuetatik urrundu eta beste errealitate bat ezagutzeko aukera eman nahi zaie"**

Usurbilgo Udalak hiru urte daramatza elkartasun ekimen honekin bat egiten eta tarte horretan, 3 haur saharar izan dira herriko familietan harreran hartuta. Aurtengo edizioa martxan dute baita. Informazio gehiago eta izen ematea:

**Gizarte Zerbitzuak**  
Nagusia 43  
943 377 110  
gizartelangilea3@usurbil.eus

Oharra: epea, apirilaren 10era arte.

## 36ko gerrako aztarnen bila, Zubieta aldeko mendietan

"Azken hilabete luzeetan Islada Ezkutatua taldeak 1936ko gerrako aztarna ugari aurkitu ditu Zubietako mendietan: mauser fusileko bala zorroak, pistolakoak, bonba zatiak... Eta ikertzen jarraitu ahala, aurkikuntza gehiago egin daitezkeela diote. Horregatik saskiak garbitzen aritu dira. Beraien lanari babesa emateko, auzolaneko deialdia egitea pentsatu da, Txaldataurreko lubakia txukuntzeko. Horretarako lanabesik aproposenak aitzurak eta palak izango dira".

- Otsailak 21.
- Orduetgia: 08:15.
- Tokia: Artzabaleta.
- Eraman beharreak: autoa eta sastraka garbitzeko tresnak.
- Deitzailea: Zubieta Lantzen.

## 328tik 344ra igo da langabetu kopurua urte hasieran

Tradizionalki, honako hauek ez dira hilabete onak izaten, langabezia datuei dagokienean. Eta urte hasiera hau ere ez da salbuespena izan. Langabeziak gorantz egin du berriz. Abenduan 328 langabetu zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak Usurbilen. Urtarrilean 16 gehiago, guztira 344. Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere gorantz hilabete tartean; bailara mailan, 4.657tik 4.808ra eta Gipuzkoan, 46.007tik 47.554ra.

Langabeziarekin batera, kontratazioa ere nabarmen igo da. 361 lan kontratu erregistratu ziren urtarrilean Usurbilen; abenduan, 285. Ia denak aldi baterako; 335. Gizonezko gehiago kontratatu ziren (195), emakumezkoak baino (166).

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**TXAPELDUN**  
TABERNA

razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...

Muna lurra 2, 943 11 82 53

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

## Usurbilgo EAJ-PNV: “Ezinbestekoa da inbertsioak handitzea ekonomia suspertu eta enplegua sustatzeko”

Udal aurrekontuak behin betiko onartu dira. Eta EAJ-PNV kezkatuta dago. NOAUA!ra igorri duten prentsa oharrean diotenez, Bilduk informazio nahasia eman du. Inbertsio gehiago egitearen aldekoak dira, eta hondakinen kudeaketaz eta garapen agentziaz, bestelakoa da EAJren iritzia. Halaber, kezkatuta daude Udalak duen zorrarekin eta zor horren kudeaketarekin.

“Bilduk onartu du diru sarrera handiagoak izan arren, %1,3 bakarrik gasta lezakeela gainerako guztia zorra ordaintzeko bideratuko duela. Zer esan nahi du honek? Udalak ez daukala zorrak ordaintzeko dirurik? Zorra gehiago handituko dela? Edonola ere, argi gelditzen da egoera ekonomikoak kaxkarra izaten jarraituko duela.”

### Enpresak eta industria indartu

Egoera honen aurrean, EAJ-PNVk gastu arruntak murriztu eta inbertsioak handitzea proposatzen du. “Ezinbestekoa da inbertsioak handitzea, herriko azpiegiturak hobetu, ekonomia suspertu eta enplegua sus-



Josune Urkola, EAJ-PNVko zinegotzia.

tatzeko. Uste dugu Udalak ahalegin berezia egin beharko lukeela enpresak eta industria indartzeko, batez ere, enpresa txiki eta berriak. Izan ere, gaur egun, erabat alboratuta dauzka.”

### Hondakinen kudeaketaz

Aurrekontuei ezezkoa emateko garaian arduatu zuen bezala, hondakinen kudeaketa garestiegia iruditzen zaio EAJ-PNVri: “Aurrekontuen arabera, 822.000 euroko gastua dauka, eta zerga bilketaren bidez 520.000 euro biltzen dira; beraz, 300.000 euroko desfasea dago”.

### Eskualdeko garapen agentziaz

Buruntzaldeko eskualderako garapen agentzia sortzeko 182.000 euro gorde ditu Udalak, “baina uste dugu kantitate hori asko handitu beharko dela. Izan ere, Bilduk agentzia eskualdeko sei herrien eskutik sortu nahi bazuen ere, gehiengoa daukan hiru herritan bakarrik egin ahal izango du, oposizioko gainerako alderdiak aurka agertu baitira. Eta, ondorioz, agentzia, Usurbil, Hernani eta Astigarragara mugatuko da ziur aski. Horrek esan nahi du hiru herriek aurrera egiteko diru gehiago jarri beharko dugula”. Eusko Alderdi Jeltzaleak eskualde osoko herriak bilduko dituen agentzia bat nahi du, “ez dugu beste inolako proiektu baztertzailerik babestuko”.


Honekin guztiarekin, Bilduren kudeaketa ekonomikoak “kaxkarra” dela dio EAJk, “eta herritarrei azaldu badela gauzak egiteko bestelako modua. Hori da EAJ-PNVren konpromisoa”.

## “Argi ikusten da aurrekontuaren %88 mantenu gastuak eta udaleko langileen soldatak ordaintzeko erabiliko dela”

EAJ-PNVren esanetan, “Bilduk 2015eko aurrekontuen inguruko informazio nahasia eman zuen NOAUA!n; datu batzuk ehunekotan eta beste batzuk eurotan agertuz. Tranpa egin nahi izan zuen modu horretan bere aldeko tesiak indartzeko. Baina herritarrek beraien dirua zertan gastatzen den jakiteko eskubidea daukate”. Aldameneko taularen bitartez, Usurbilgo EAJ-PNVk kontzeptuak argitu nahi ditu.

Taulari begiratu gero, “argi ikusten da aurrekontuaren %88, edo hamar eurotatik zortzi, mantenu gastuak eta udaleko langileen soldatak ordaintzeko erabiliko dela”, dio EAJ-PNVk. “Hau da, hamarretik bi euro besterik ez dira gelditzen inbertsioak eta Usurbilek behar dituen gainerako zereginetarako”.

Alderdi jeltzalearen esanetan, “Udalak onartu du gastua ez duela handituko Espainiako gobernuak hala agintzen diolako. Eta hori entzunda,



EAJren esanetan, 10etik 2 euro bakarrik geratzen dira inbertsioetarako eta beste zereginetarako.

gogora datorkigu ezker abertzaleak nola esaten dion beti EAJ-PNVri Espainiatik datozen aginduei intsumisioarekin erantzun behar zaiela. Badirudi

erraza dela esatea, baina, ez hainbeste, aplikatzea. Gogora dezagun hortxe daukagula, udalean, Bilduk jarri zuen Espainiako bandera”.



# Xabier Berasaluze Leturia: “Otsailaren 28ko kontzertua gauza puntuala izango da”

Aurreko astean eman genuen albistea. Tapia eta Leturia Taldeak kontzertua eskainiko duela Sutegin. Otsailaren 28an izango da eta #Kilometroak15-en alde. Ez da taldearen itzulera bat izango. Aparteko saioa izango dela, alegia. Bakarra. Horregatik sarrerak aurretik eskuratzea merezi. Jakinmina piztu duenez, badaezpada ez utzi azken ordurako. Azken sarrera batzuk geratzen dira Txirristran.

Aurreko astean, Euskadi Irratian aritu zen hizketan Xabier Berasaluze Leturia. 90eko hamarkadari buruzko saioa egin zuten “Hiri Gorrian” saioan eta Leturiak orduko pasarteak ekarri zituen gogora. Elkarrizketa amaieran,



Tapia eta Leturia Taldearen saioa Sutegin izango da. Sarrerak agortzeaz dira. Azkenak Txirristra tabernan daude salgai.

kazetariak Usurbilgo saioaz galde egin zioten. Lehenik eta behin, emanaldiaren apartekotasuna argitu nahi izan zuen. “Moztuta dugu trikitixa istorio hau. Horrek ez du esan nahi, tarteka gure inguruan biltzen

ez garenik, jotzen ez dugunik. Laguntzat, trikitilari elkarte-koentzat... Lana, eta bestelako kontuetan gabiltza, baina ez gaude geldirik. Hilabete bukaeran, emanaldi bat eskainiko dugu #Kilometroak15-en en

alde”. Sutegikoa beraz, “gauza puntuala izango da, lagun-en artekoa. Baina kalean ez gabiltza jotzen”.

## Sarrerak non eskuratu?

- Otsailaren 28 larunbata.
- Arratsaldeko 19.00etan.
- Sarrera: 15 euro. Ikasle eta langabetuek: 10 euro.
- Sarrerak erosteko: azken txartelak Txirristra tabernan daude salgai.

## Sarrera zozketa

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu. Email bat idatzi erredakzioa@noaua.eus helbidera eta otsailaren 27an ostirala, noaua.eus orrian argituko dugu zein bazkidek jasoko dituen bi sarrera.

# Tapak eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2014 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2014ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zarenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditza- kezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

# 2014



557-598 zenbakia

# Kontu kontari, ipuinen



# mozorro festan



Udarregi Ikastolako ikasleek Oiardo kiroldegian aritu ziren dantzan. Zubietakoak, plazan.

## BAZKIDEEN TXOKOA



NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera ditugu zozketatzeko. Email bat idatzi [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera eta otsailaren 27an ostirala [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus) orrian bazkide sarituaren izena.

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

# OSASUN GIDA 2015



**USURBIL**  
**OPTIKA**

Entzumeneko aparatua • Igenlekuko tapoiak neurrira eginda  
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10 • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

**2x1**  
PROGRESIBOETAN



**FISIOTERAPIA ZENTROA**  
**Ibaiondo**

Fisioterapia  
Osteopatia  
Errehabilitazioa  
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxe: 943 370 306



**Kima**  
MASAJE LEKUA

• Kirol masajea  
• Masaje terapeutikoa  
• Kolonaren hidroterapia  
(idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA



**Öinutsik**  
podologia zentroa

ORDUTEGIA BERRIA (EKAINERARTE):  
asteartea 9.00 - 15.30  
asteazkena 9.00 - 13.00 / 15.00 - 19.30  
osteguna 9.00 - 13.30

ORDUTEGIZ KANPO IUTZI MEZUA 943 11 09 54 TELEFONOAN



**Öinutsik**  
☎ 943 11 09 54

- ✓ Azterketa biomekanikoak ✓ Plantilak
- ✓ Papiomak ✓ Erreflexoterapia
- ✓ Kolagenozko infiltrazioa ✓ Kiropodiak

Zubiaurrenea 2, Usurbil



**Iturraldebotika**  
Tomas Iturralde botika  
108/12 P.E.Z.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua  
Dermofarmazia  
Produktu homeopatikoa  
Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95 [www.iturraldebotika.com](http://www.iturraldebotika.com)

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

# Euskararen arnaguneak erdalduntzen

Zer hausnartua eman beharko liguketena datuak argitaratu dira. 1981-2011 urte artean, udalerrri euskaldunek izan duten bilakaera soziolinguistikoa aztertu du, Soziolinguistika Klusterrak. Eta datuak eskutan, ondorio argi batera heldu dira; 30 urteotan, eremu erdaldunak euskalduntze bidean aurrera egin duten artean, udalerrri euskaldunak erdaldundu zaizkigu. Eta nola gainera.

Bilakaera oso argia omen da; zenbat eta erdaldunagoa izan udalerrria, orduan eta gehiago euskaldundu da hiru hamarkada hauetan. Aldiz, euskara sendoen zegoen udalerrietan eman da erdalduntze handiena. Datuek argi erakusten omen dute; azken urteotako joerak ikusita, “egungo errealitateak elebitasun orekatuarekin zerikusi handiagoa du”. Hala zioen hilabete hasieran, UEU-k, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Usurbilgo Udala kide duen UEMA-k eta Kontseiluak antolatu eta EHU-k babesturiko Lurralde eta Hizkuntza jardunaldien bigarren edizioan, Soziolinguistika Klusterreko kide Iñaki Iurrebasok. Bere lan taldeak, udalerrri euskaldunen inguruan eginiko azterketako emaitzak aurkeztu zituen aipatu saioetan. Honez gain, Gai-degiako beste kide batek, gaia ikuspuntu sozioekonomikotik aztertu zuen.

## “Arnaguneak beharrezkoak, euskararen etorkizuna bermatzeko”

Orain arte eman den erdalduntzeak, jada galtze arriskuan jarri ditu “muturreko gune euskaldunenak”. Eta ez omen da hemen amaituko. Azterketa soziolinguistikoa honen aurkezpenean, aurreikuspenik ere egin zuten. Euskararen atzerakada bizitzen segiko omen dugu datozen urteotan ere, baina “abiadura



1981-2011 urteen artean, udalerrri euskaldunek izan duten bilakaera soziolinguistikoa aztertu dute. Usurbilen, etxeko erabilera %9,2 gutxitu da.

### ATZERA

**“Euskarak atzera egin du, udalerrri euskaldunetan. Bereziki azken hamar urteetan. Eta arrazoi ezberdinengatik. Usurbil ez dago analisi horretatik aparte”**

apalduko dela dirudi”. Zalan-tzak argitzen laguntzeko, gai honi buruz gehiago aztertu beharra dagoela nabarmendu zuten Lurralde eta Hizkuntza jardunaldietan.

Udalerrri euskaldunek izango duten bilakaera sozioekonomikoa ezagutu, erakunde zein eragileen arteko elkarlana sustatu eta politika eraginkorrak asmatu beharko direla zioten. Eta egungo errealitatean nola eragin asmatzen bada, “udalerrion sendotzeaz hitz egiteko moduan” izango garela zioen, Soziolinguistika Klusterreko Iñaki Iurrebasok. Erdalduntzea gerarazteko mahai gainean jarri zuten etorkizunerako erreze-ta beraz; gaia gehiago aztertu, kontzientziatu eta eragin. Iurrebasoren esanetan, Usurbil bezalako “arnaguneak beharrezkoak izango dira, euskararen etorki-

zuna bermatzeko”.

Donostiako jardunaldietan ziotenez, “euskarak atzera egin du, udalerrri euskaldunetan azken bi hamarkadetan”. Bereziki azken hamar urteetan. Eta arrazoi ezberdinengatik. Herriz herri aztertu dituzte datuak. Usurbil ez dago, Soziolinguistika Klusterrekoek aurkezturiko errealitateak at.

### Balantzearen beste aldea

Soziolinguistika Klusterrak aurkezturiko azterketak datu baikorrik ere badu. Azken 30 urteetan eremu erdaldunetan euskalduntzeko eginiko ahaleginak eragin nabarmena izan duela aipatzen zuten. Eta honenbestez, itxaropentsu begiratzen zioten etorkizunari.

### Kuantitabikoki, eremu gehiago dira euskaldunak

Irabazitakoa gehiago izan da, galdu dena baino. “Kuantitabikoki eremu gehiago dira euskaldunak, erdaldunak baino”, Soziolinguistika Klusterrekoen esanetan. Hamarkada hauetan Euskal Herria euskalduntzen eginiko lanak emaitzak ekarri dituela nabarmendu zuten. Orain, datuak eskutan, euskararen arnaguneak indartu behar.

### Usurbilen ere, atzeraka

Soziolinguistika Klusterrak Usurbilen eginiko azken kale neurketaldiko emaitzek argi utzi zuten. Beste hainbat lekutan bezala, euskararen arnaguneetako bat dugun udalerrri honetan ere geure ama hizkuntzaren ezagutza mailak gora egin zuela azken urteetan, baina ez hainbeste erabilerak. Euskara ezagutu eta menderatu arren, ez dela ezagutu bezainbeste ahotan hartzen. Erdalduntzerantz jo dutenen artean da udalerrri hau ere. Hala diote Gai-degiak Usurbili buruz kaleraturiko datuek:

- Udalerrriko euskara gaitasuna: %78,15.
- Euskararen erabilera sozialaren tasa: %36,48.
- Euskara ziurtagiriak dauzkaten establezimenduen indizea: %25,08.
- Euskal Herria aintzat hartzen duten alderdien babes maila: %86,56.
- Euskaldun kopuruaren bilakaera: %10,8ko igoera.
- Lehen hizkuntza euskara dutenen bilakaera: %5 gutxiago.
- Etxean euskara erabiltzen dutenen bilakaera: %9,2 gutxiago.

### Euskaraz bizitzea aldarrikatzeko manifestazioa

“Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara” lemapean, manifestazioa deitu du Kontseiluak, UEMAko kide diren Aduna, Antzuola, Arama, Bergara, Gaintza, Oiartzun, Oñati, Usurbil, Zarautz eta Zeraingo udal ordezkariekin batera, otsailaren 28rako Donostian. 17:30etan abiatuko da mobilizazioa, Gipuzkoa plaza-tatik. Bulebarrean amaituko da. Hizkuntza-politiketan azken al-dian Estatuaren zein Nafarroako Gobernuaren bidez jasandako injerentziak salatzea eta hainbat administrazioetako arduradunek aurrera egiteko hartu duten determinazioa txalotzea izango da mobilizazioaren helburua. Euskaraz bizi nahi duten herritar guztiak manifestazioan parte hartzea gonbidatu dituzte.

# Bigarrenenez sarituak

Joxemi Villafafila eta Javi Rincon dira otsailaren 1eko Tipi-Tapako zozketan 2. saria irabazi zuten herritarrik. Bi laguntzako afaria egokitu zaie Txapeldun tabernan. Hurbilago Elkarteak antolaturiko ekimean saria egokitzen zaien bigarren aldia da honakoa. Ondoko irudian dituzue pozik asko, Txapelduneko Mikel Elexperekin. Hurrengo Tipi-Tapan, martxoaren 1ean, barazki pintxoak. Zazpi ez, sei tabernetan. Go-goan izango duzue, Xarma taberna azken pintxo festa eguna amaitu ondoren itxi zuten.



Joxemi Villafafila eta Javi Rincon izan dira otsailaren 1eko zozketako sarituak. Martxoaren 1eko Tipi-Tapa barazki pintxoekin osatuko da.

## Korrikaren aldeko mus txapelketa

Korrikaren aldeko Gipuzkoako III. Mus Txapelketa antolatu dute eskualdeka, 4 erregetara. Lasarte-Usurbil eskualde mailako kanporaketak, ostiral honetan, otsailaren 20an, 22:00etatik aurrera Lasarteko Avenida tabernan (Jalgi parean). Izen ematea aurrez, Lasarteko Muntteri eta Usurbilgo Etumeta AEK euskaltegietan. Honatx euskaltegiko telefono zenbakia; 607 609 379. Edo txapelketa egunean bertan apuntatu zaitzekete, txapelketa hasi aurretik, aipatu tabernara gerturatuta. Prezioa; 12 euro bikoteko. Txapeldun eta txapeldun ordeek, "Riojanos" erretegiak eskainitako bazkari edo afaria izango dute sari gisa. Eta Gipuzkoa mailako finalerako txartela noski.

Gipuzkoako finala, otsailaren 28an, 17:00etatik aurrera Astigarragako Zipotza elkartearen.

## "Lehen sorospenak haurtzaroan" ikastaroa

Martxoaren 2an, Istripuen Ekiditea eta Lehen Sorospenak Haurtzaroan ikastaroa hasiko da DYaren egoitzan.

Ikastaroaren iraupena astebetekoa da, martxoak 6 arte, 10:00etatik 12:00etarako ordu-tegiarekin, asteleheneetik ostiralera. Klaseak DYako Ordezkaritzan, Muna-Lurra 26 kalean emango dira, Usurbilen.

Ikastarora bertaratzen direnek erorketa, erredura, intoxikazio eta antzeko arazoei aurre egiteko oinarriko ezaguerak eskuratu ahal izango dituzte. Ezaguera guzti hauek programa baten bitartez modu errazean eta entretengarrian ikasiko dira, non teoria eta praktika txandakatuko diren.

Matrikularen kostua 60 euro-takoa da. Plazak mugatuak dira. Izena emateko 943-46.46.22.

## "La Red Social" filma ikusteko sarrerarik nahi?

2003. Mark Zuckerberg Harvardeko ikasleak unibertsitateko sistema informatikoa legez kanpo koptiatuko du. Facebooken hastapenak izan ziren horiek eta, geroztik, denon ahotan dago sare soziala. Eta asko dira sare horretara 'kateaturik' bizi direnak.

"La Red Social" filmaren abiapuntua da hori. 2010ean, Donostiako Zinemaldian eman zuten lehen aldiz. Datorren astean, Orona Fundazioko Auditorium-ean eskainiko dute. Sarrera doan da baina gonbidapena behar da bertaratzeko. Usurbilgo Udaletxearen eskutik, hainbat gonbidapen jaso ditugu gure irakurleen artean banatzeko. Beraz, sarrera hauetako bat eskuratu nahi baduzu, NOAUA:tik pasa bulego orduetan.

- "La red Social"
- Otsailaren 24an asteartea.
- 11:00etan Orona Auditorium.

## Ikastaroa Zubietan, bizikletaren mekanikaz

Otsailaren 28an, larunbatez, arratsaldeko 16:00etan hasita Zubietako Kaxkape egoitzan. Saioa, Errazkin Bizikletak saltokiko arduradun Arkaitz Errazkin usurbildarrak bideratuko du. Sarrera doan. Ekitaldia, Zubietako herritar talde batek eta NOAUA! Kultur Elkarteak antolatu dute.



Otsailaren 28an larunbatez, Zubietako Kaxkapean, 16:00etan.

## Orientazio ikastaroa

Andatza Mendizale Elkarteoko orientazio kirola zer den ezagutu nahi dutenentzako froga antolatu dute igande honetan, Miramongo parkean. Irteera Basque Culinary Center-en izango da. Haur, gazte, heldu zein familiei zuzendua dago ikastaroa. Informazio gehiago eta izen ematea: <http://orientacionmiramon.blogspot.com.es/p/inscripciones.html>

## Futbola Haranen

### Otsailak 21 larunbata

09:30 Benjaminak:  
LH3 Futbol Topaketa.  
10:15 Benjaminak:  
LH4 Futbol Topaketa.  
11:30 Alebin neskek:  
Udarregi 6A-Udarregi 6B  
11:30 Alebin neskek:  
Udarregi 5B-Urnieta A  
16:30 Jubenil mutilak:  
Usurbil FT-Internacional CD

### Otsailak 22, igandea

11:30 Alebin federatua:  
Usurbil FT-Internacional CD.

**ALDAMU**  
KONPONKETAK  
KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**  
Moduz, azkar eta prezio onean  
MARKA GUZTIAK  
645417665  
XABIER  
Usurbil

**KONSTELAZIO FAMILIARRAK**  
FAMILI ETA ESKOLAN BIZI ETA ELKARBIZI  
BALIABIDE SISTEMIKOAK  
(HILERO LARUNBAT BATEZ)  
688 865 708 DONOSTIA

**GERAR**  
BARNEALDEKO PINTURAK  
PAPEREZTATU, LISOAK...  
USURBIL 630 70 20 10

# 30 domina, 30 egunetan

Juniorrak eta seniorrak dira, azken hilabeteetan domina gehien bildu dituzten Usurbil Judo Klubeko kideak. 30 domina inguru guztira, taldetik blog bidez berri eman dutenez. Usurbil Judo Klubak podiumetik jaisi gabe segitzen du:

## Euskadiko Junior Txapelketa (Gasteiz, otsailak 8)

Nesketan:

- 48kg Paula Vicente (Urrea)
- 48kg Mafer Carazas (Zilarra)
- 52kg Itsasne Arruabarrena (Urrea)
- 52kg Alba Vicente (Brontzea)
- 57kg Nahikari Borda (Urrea)
- 63kg Lorea Etxabe (Zilarra)

Mutiletan:

- 55kg Julen Alzas (Zilarra)
- 60kg Jon Rubio (Zilarra)
- 66kg Nestor Laca (Urrea)
- 73kg Xabier Cazorla (Urrea)
- 73kg Mikel Formoso (Brontzea)
- 90kg Mikel Sanz (Brontzea)
- +100kg Joxe Arruebarrena (Urrea)

## Gipuzkoako Junior Txapelketa, (Hernani, urtarrilak 31)

Mutiletan:

- 60kg Jon Rubio (Brontzea)
- 73kg Mikel Formoso (Zilarra)
- 90kg Mikel Sanz (Zilarra)
- +100kg Joxe Arruebarrena (Urrea)

Nesketan:

- 48kg Paula Vicente (Urrea)
- 48kg Mafer Carazas (Zilarra)
- 52kg Itsasne Arruabarrena (Urrea)
- 52kg Alba Vicente (Zilarra)
- 57kg Nahikari Borda (Urrea)
- 57kg Nagore Eizagirre (Zilarra)
- 63kg Lorea Etxabe (Urrea)

## Seniorren Txapelketa

(Lormont, Frantzia, urtarrilak 31)

- 48kg Miriam Gonzalez



**Euskadiko Junior Txapelketa jokatu berri da Gasteizen. Argazkian Usurbilgo taldeko kideak, pozarren.**

- 52kg Aiora Arrillaga (Brontzea)
- 57kg Andrea Arruabarrena

## Espainiako Superkopa

(Tortosa, urtarrilak 16-17)

- 48kg Paula Vicente (Brontzea)
- 52kg Itsasne Arruabarrena
- 73kg Xabier Cazorla (Urrea)

Informazio gehiago: [jcusurbil.com](http://jcusurbil.com)

## Pilota partidak

Otsailak 21 larunbata

Aginagan, 17:00etatik aurrera

Euskal Herriko txapelketa

Nagusiak banaka:

PAGAZPE-OIARPE (Oartzun)  
(Ander Quina)

Udaberri Txapelketa, Nagusiak 1. maila

PAGAZPE-BEHAR ZANA 2 (Villabona)  
(Artetxe-Katalina)

Udaberri Txapelketa, pala 2. maila

PAGAZPE-ALDE ZAHARRA  
(Josu Arruti-Haritz Zubiaur)

## Martxoaren 8an Gorriti-Tolosa bidea osatzera

Andatza M.K.T.-koek antolatutako hurrengo txangorako izen ematea ireki dute:

Irteera hitzordua: 7:30, Oiardo Kiroldegia.

Joan etorria: autobusez.

Ibilbidea: Gorriti-Tolosa, 19 km. "Ulizar mendia, eta Gaztelu eta Leaburu herriak zeharkatuko ditugu ibilbidean. Tolosara iritsi ondoren autobusak Usurbilera itzuliko gaitu".

Izen ematea: martxoaren 4a baino lehen. 12 euroko ordainketa egin, Andatza M.K.T.-ren kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805

Oharra: Andatza M.K.T.-k antolatutako irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izan eta aseguru txartela indarrean edukitzea.

Informazio gehiago: [andatzamendizale.info](http://andatzamendizale.info)

## Eskubaloi partidak

Otsailak 21, larunbata

09:30 Alebin mutilak: Langile B-Udarregi 5A

09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5C-Urnieta 5B

10:30 Alebin mutilak: Udarregi 6A-Udarregi 6C

11:30 Infantil neskek: Udarregi A Usurbil-Tolosa

13:00 Kadete neskek:

Usurbil K.E. "A"-C.B. Kukulugga

16:00 Jubenil neskek: Usurbil K.E.-San Adrian

17:45 Senior neskek: Usurbil K.E.-Leizaran

19:30 Kadete neskek: Usurbil K.E. "B"-Bera Bera

Otsailak 22, igandea

11:30 Alebin neskek (7):

Usurbil K.E. "A"-Bera Bera

## Gipuzkoako Eskubaloi Selektzioa

Otsailak 22, igandea

13:45 Infantil nesken Gipuzkoako selektzioaren entrenamendu saioa, Donostiako La Salle Kiroldegian. Udane Valin (Usurbil KE) deitu dute hitzordura.



606 37 21 05  
Atallu n°78 USURBIL



693 059 392  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) USURBIL



BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •  
ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

[info@inakiturgintza.com](mailto:info@inakiturgintza.com) - [www.inakiturgintza.com](http://www.inakiturgintza.com)  
600 024 825



649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
[urdaintzi@euskainet.net](mailto:urdaintzi@euskainet.net)

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK





Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketari eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketari industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketari lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketari edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketari egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona

helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrek ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzean eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsoneri erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko

prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldean. Irakaskuntza gradua bukatzean eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakas-kuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsaldean. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldari, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketari eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo hel-

duak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketari lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrek ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen,

Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko.

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrek emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

#### BESTELAKOAK

Usurbil, Zubietako edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke auziandak jartzeko. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Etxean genituen bi kanario falta zaizkigu. Aurkitzen badituzue, deitu: 943 36 55 74 (Regina).

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Trona bat JANE markakoa salgai. Berri berria. Urdina marrazkiekin. Tel. 666 373 665.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Suteji Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak Otsailak 19 - martxoak 01

**Osteguna 19** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 20** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 21** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 22** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 23** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 24** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 25** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

**Osteguna 26** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 27** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 28** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

**Igandea 01** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00etatik  
13:30etara

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87  
22:00 - 09:00

# Agenda otsaila

## 20 ostirala

■ **Korrikaren aldeko mus txapelketa.** Izen ematea aurrez, Lasarteko Muntteri eta Usurbilgo Etumeta AEK euskaltegieta (607 609 379). Informazio gehiago: 14. orrialdean.

## 21 larunbata

■ **Auzolana Zubietako Artzababetan.** 8:15ean. Informazio gehiago, 7. orrialdean.

## 22 igandea

■ **Skate Eguna** gaztetxean.  
■ **'Izarren argia' Sutegin.** 18:00etan, sarrera doan.

## 'Izarren argia' pelikula, igande honetan Sutegin



Usurbilgo Eragile Feministak antolatu du film honen proiektzioa.

Mikel Rueda zinegilearen film honek Sa-turrarango emakumeen istorio lazgar-ria islatzen du. Faxistek 1.500 emaku-me inguru izan zituzten preso han, 1938tik 1944ra arte. Oso baldintza gogorretan bizi zi-ren, eta haietako batzuei seme-alabak bahitu zizkieten. 2010ean, Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten filma.

Barbara Goenaga, Itziar Lazkano, Klara Ba-diola eta Estibalitz Gabilondo aktoreek hartu zuten parte filman. Eta Azpeitian, Hondarribian eta Artikutzan egin zituzten grabazio lanak. Usurbilgo Eragile Feministak sustatu du film honen proiektzioa.

- Otsailak 22 igandea, 18:00etan.
- Sarrera doan.

### Igandean, Skate Eguna

Usurbilgo Gaztetxeak antolatu du, "Ez dadila haria eten!" lempaean. Skate Eguna gaztetxeko bigarren pisuko skate parkean ospatuko da.

### Santixabeletako lehen bilera

Otsailaren 23an, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Herritar nahiz eragileei bertara joateko gonbita luzatzen zaie.

### Datozenak

#### Otsaileko kantu-jira eguerdiz egingo da eta bazkaria antolatu dute Saizarren

Kantu-jira berezia izango da otsailaren 28koa. Eguerdian eta gasteiztarrekin batera ospatuko da. Ondoren, guztiak bazkaritarako bilduko dira Saizar sagardotegian. Otordurako txartelak aurrez eskuratu behar dira, otsailaren 23a baino lehen. 26 eurotan dituzue salgai, Lizardi liburu dendan. Kantu Taldetik, hitzorduotan parte hartzera animatzen dute herritar oro:

#### Otsailak 28, larunbata

12:00 Kantu-jira, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

14:30 Bazkaria Saizar sagardotegian.

Antolatzaileak: Usurbilgo eta Gasteizko kantu taldeak.

Babeslea: Usurbilgo Udala.



Gasteizko kantu taldea batuko da otsaileko kantu-jiran.

### Tapia eta Leturia, Sutegin

#Kilometroak15-en aldeko kontzertua eskainiko dute, otsailaren 28an larunbata, Sutegin. 19:00etan hasiko da.

**Pinturas Ion**

KANPOALDEKO FATXADAK ETA BARNEALDEAK (PISUAR, LOKALAK...)  
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK

690 99 05 58  
ionf81@hotmail.com

**URPI** Leihook  
urpileihook@gmail.com

943 50 80 95 • 688 81 93 33  
nagusia 10 (atzek) USURBIL


**ELORZA**

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S.L.

661 804 688  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Unibertsitatea,  
inguruko gizartearekin  
inplikatzea ere bada.

**erronkarako #prest**



**Katalin Madariaga,**  
Lidergo ekintzailea eta berrikuntza, 3. maila.

**PREST**



**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

**GRADUKO ATE IREKIAK**

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**DONOSTIALDEA · OTSAILAK 28**

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**GOIERRI · MARTXOAK 14**

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

**OÑATI · MARTXOAK 14**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**BIDASOA · MARTXOAK 28**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA**

**ESKORIATZA · MARTXOAK 7**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA · MARTXOAK 7**

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
Basque Culinary Center

**DONOSTIA · MARTXOAK 21**

Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

**902 110 436**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)





**USURBIL**  
oraina da geroa



Usurbilgo Udala

# NOLAKO HERRIA NAHI DUGU? AURRERAKIN DOKUMENTUA

**2 FASEA**

Otsailak 26, 19:00etan Sutegin

---

**AURRERAKIN DOKUMENTUA.  
AURKEZPEN SAIOA.**

Martxoak 5, 19:00etan Potxoenean

---

**AURRERAKIN DOKUMENTUA.  
EZTABAIDA SAIOA.**